



BARREN

TOKIKOM

# Pedalontzian Zinemaldira



barrera 11, EIBAR

garajesGarcía.com

KUPOI HONEKIN

**%10eko**  
deskontua  
filtroetan



www.garajesgarcia.com  
g.garcia@garajesgarcia.com

Telefonoa: **943 820 697**  
Lanlea: **943 202 214**  
**943 127 271**

14.500€



**FORD GRAND C-MAX 2.0 TDCI TITANIUM**  
Motorea: 2.0 cm3 TDCI Diesel  
Kilometroak: 80.000  
Egoera: erabilia

15.500€



**VW GOLF 1.6 TDI CR BM BUSSINES**  
Motorea: 1.6 cm3 TDI Diesel  
Kilometroak: 90.000  
Egoera: erabilia

13.800€



**HONDA CR-V 2.2 iDTEC COMFORT**  
Motorea: 2.2cm3 iDTEC Diesel  
Kilometroak: 220.000  
Egoera: erabilia

6.500€



**RENAULT CLIO BUSINESS**  
Motorea: 1.5 cm3 DCI Diesel  
Kilometroak: 106.000  
Egoera: erabilia

11.500€



**CITROEN DS 3 1.6 Vt Special Edition 120**  
Motorea: 1.6 cm3 VTE Gasolina  
Kilometroak: 115.000  
Egoera: erabilia

13.500€



**AUDI A4 TDI 2.0 DPF 143**  
Motorea: 2.0 cm3 TDI Diesel  
Kilometroak: 80.000  
Egoera: erabilia

## 2017ko EGUTEGIRAKO ARGAZKI LEHIAKETA

- ❖ **GAIA:** Elgoibarko eraikinen fatxadak, leihoak, balkoiak, atek...
- ❖ **SARIA:** 12 argazki sarituko dira, bakoitza 70 euroekin.
- ❖ **EUSKARRIA:** paper fotografikoa edo argazki digitala CD batean nahiz emailaz.

Lanen aurkezpena: bi aukera,

1. Postaz edo eskura: itxitako gutunazalean eta barruan egilearen datuak.
2. Emailaz, [euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus) helbidera bidalita. Partehartzaileak konfirmazio mezu bat jasoko du lehiaketan onartua izan dela jakinarazteko.

- ❖ Lanak aurkezteko azken eguna: 2016ko urriaren 14a
- ❖ Informazio gehiago: Kultur Etxean (Euskara saila), telefonoa: 943 744 366
- ❖ Pertsona bakoitzak, gehienez ere, 6 argazki aurkeztu ahal izango ditu.



### AEG L73486FL GARBIGAILUA

8KG - 1400 RPM  
A+++  
(kontsumoan %30eko aurrezpena).



**449€**

### SAMSUNG WW70K5410WW/EC GARBIGAILUA

7KG / 1200 RPM  
A+++ (kontsumoan %30eko aurrezpena)  
Addwash- garbiketan ari den bitartean  
gehitu itzazu zure erropak garbigailura.



**549€**

Dendako prezioak

### AEG T76786IH1 LEHORGAILUA

8KG - Bero pompa - Inverter Motora  
A+++ (kontsumoan %20ko aurrezpena)  
Addwash- garbiketan ari den bitartean  
gehitu itzazu zure erropak garbigailura.



**699€**

## Garbiketarako hilabetea

# MILAR BIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

50 euro arteko deskontu-bekeak opari zure hurrengo erosketetarako. Kontsultatu gure baldintzak.



NEREA GURRUTXAGA

### “Sentimendu kontraerriak sortu dizkit Rio de Janeiron ikusitakoak”

**K**aixo, Nora, zer moduz zaude? Nik aitortu beharra daukat, duela hiru aste bueltatu ginen arren, Rioko Paralimpiar Jokoetan bizitakoa dudala oraindik buruan. Izugarria da horrelako ekitaldi bat bertatik bertara bizitzea, eta are gehiago Brasil bezalako herrialde batean. Hala ere, sentimendu kontraerriak sortu dizkit Rio de Janeiron ikusitakoak. Batetik, ilusioz beterik ikusi genituen olimpiar parkera gerturatutako brasildarrak, bai ikusle bezala zihoazenak eta baita boluntarioak ere. Izugarria izan da *cariocek* kirola nola bizi duten ezagutzea, eta beraien alaitasunaz kutsatzea. Bestetik, galdera bat izan dugu buruan han egon garen lau gazteok, gure artean askotan komentatu izan duguna: zer gertatuko da bizitzaz beteta ikusi ditugun estadio, belodromo eta instalazio guztiekin, jokoak amaitzean? Oso entzunak izan dira jokoen inguruan sortu diren polemikak, eta gure begiekin ikusteko aukera izan genuen, esaterako, nola ze-

goen estadio olimpikoa favelaz inguratua, txabola auzoen gainean eroritako ovni erraldoi bat balitz bezala. Horrenbesteko kostua izan duten obra horiek izango al dute erabilpenik etorkizunean? Merezi izan al du horrenbeste familia etxez aldatzera behartzeak?

Kontraste horien inguruan bizi izan genituen Paralimpiar Jokoak, eta antzeko sentsazioa izango dute agian kirolari paralimpiko askok ere. Benetako izar bezala tratatu dituzte Rioko Paralimpiar Jokoetara gerturatu diren ikusleek, baina errealitate bueltatzean betiko oztopoei aurre egiten jarraitu beharko dute. Kontraesanak kontraesan, Jokuek bezalako zabalkundea eta irismena duten ekitaldiek errealitate sozial horiek azaleratzeko balio dute, eta guri dagokigu samba doinuen eta domina distiratsuen atzean ezkatzen diren egoera gogorrez jabetzea eta horiek salatzea.



NORA KORTABERRIA

### “Rio itzalitako izarra izan da, une batean piztu dena”


**K**aixo, Nerea! Kontrastez beteriko esperientzia izan dela argi antzematen da, bai. Horrelako ekitaldi handiek barne-hartzen duten guztia izugarria izan behar da. Eta zuk zeuk esan duzun bezala, are gehiago Brasil bezalako herrialde batean.

Kirolariak izarra izan dira, dirdira egin dutenak eta Rioko inguruak dirdiraz bete dituztenak. Eta kirolariek ez ezik ikusleek ere Jokoak benetan bizi dituztela esan duzu. Begiak itxi eta haien azalean jarrita imajinatzen ditut instalazio eta estadioetako oihuak, txaloak, ilusio eta ospakizunak. Ikusleak ere protagonista sentitze horrek indarra ematen dio inguruari. Baina orain guztia amaitu dela, indar hori desagertu egingo da, eta guztia lehengora itzuliko dela dirudi, errealitate gordinera. Dirdira horren ametsetik iratzarriko dira brasildarrak, eta zuk esan bezala, Nerea, orain zer? Merezi izan al du

amets hau bizitzeak? Eta ovni izendatu dituzun estadio horiek desertuko *oasis*-ak izan al dira benetan? Edo alderantziz, desertua desertuago bihurtzeko balio izan dute?

Hala ere, agian, dirdira une hau positibotzat hartu behar dugu. Rio itzalitako izarra izan da, une batean piztu dena. Baina zenbat izar daude munduan, inoiz pizteko aukerarik izango ez dutenak?

Askotan ez dut jakiten pentsaera positiboaren muga non dagoen. Neurtu beharra dago negatibotasuna baztertzen duzun unetik beste aldera pasatzean gertatu daitezkeenak. Eta sarri, positibotasunez jokatzegatik itsututa amaitzen dut. Baikorra izan behar da, bai, baina errealitateari ateak itxi gabe. Baina zaila da. Eta hau da horrela nagoen une bat. Agian, Rioko dirdira une hau positibotzat hartu behar dugu. Baina benetan errealitatearekin bat al dator, edo atea itxi diogu?



BARREN

ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoek Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalaoa Anaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Iureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurruxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iurbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansoa, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► ESKERRIK ASKO

2016ko San Antolin jaiak pasatu dira eta eskerrak emateko unea da guretzat. Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu urtero auzoko jai hauek gauzatzen laguntzen diguten guztiei: Elgoibarko Udala, brigadako langileak, Kultura Saileko teknikariak, Saha-tzu, Usatorre taberna, Elustondo eta Beristain edari banatzaileak, Julito ardoak.

Zorionak eman nahi dizkiegu errifen zozketan saritutakoei: Dorleta Loiola, (saria: Kanariar Uharteetarako astebe-terako bidaiaria eta egonaldia). Olatz Astigarraga (saria: janari eta edariz beteriko karretila). Zorionak eta gozatu sariaz!

Bukatzeke, etorri eta gurekin batera jaietaz gozatu zenuen horri, mila esker eta hurrengo urtera arte!

**Kaxeta. San Antolin Elkarteak**

### ► ERRAUSTEGIA: PARTE HARTU ETA HARTU HITZA

Bazenekiten Zubietan eraiki nahi den erraustegiaren inguruan Usurbil eta Zubietan herri galdeketa burutuko dela urriaren 21, 22 eta 23an? Usurbildar eta zubietarrek Erraustegia Erabakia herri plataformak sustatutako egitasmo horren aurrean euren iritzia plazaratzeko aukera izango dute.

Urteak daramatzate erraustegiaren polemikarekin (gogoratu arazoa ez

dela beraiena bakarrik, gipuzkoar gutziona baizik). Uste dut kezka sortzen duen gai baten inguruan herritarrei hitza ukatzea ez dela inolaz ere onargarria. Are gehiago oraindik, galdeketa ofizialaren aldeko saiakera egin ondoren, Usurbilgo Udalak Espainiako Gobernuaren ezezkoa jaso duenean.

Galdeketa girotze aldera urriaren 16an "Erraustegia: parte hartu eta hartu hitza" lelopean Lip dub jendetsua antolatzen ari dira Usurbilen. Ahalik eta jende gehien biltzea da asmoa; guztioi eragiten digun proiektua baita erraustegiarena. Deialdia irekia da, ekimen koloretsu eta bizia, eta beraz, Lip dub ekimenera gerturatzeko gonbidapena egiten dizuet. Burua duenak ez du erraustegirik nahi bere herrian, eta bihotza duenak ez du beste inoren herrian nahi.

**A.I.Z**

### ► OHARRA

Datorren barixakuan, urriaren 14an, ez dugu BARRENik kaleratuko. Hurrengo alea urriaren 21ean jasoko duzue. Ale horretan argitaratzeko edozein informazio urriaren 19rako ekarri beharko duzue gure erredakziora.

**BARREN**

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaz datorren eskutitz argitaratuko.



## Miguel Zabala Lazarobaster

1922-09-29 / 2016-09-14

**Zure umorea eta esku zabaltasuna gure eredu.  
Maitasunez beti gogoan.**

Etxekoak



## Migratzaileen inguruko uste okerrak isildu eta gogoeta sustatu nahi du 'Elgoibarko Elkar-Bizi' egitasmoak

Gizarteratzeari eta gizarte bazterkeriaren gainean Elgoibarko Gizarteratze Mahaiaik otsailean publiko egin zituen diagnosi eta lan planean du abiapuntua *Elgoibarren elkar-bizi!* egitasmoak –Elgoibarko Udaleko Gizarte Ongizate Saila eta Berdintasun eta Enplegu Saila, Lanbide, Zabalitzen elkartea, Caritas, Gurutze Gorria, Nagusilan, Stop Desahucios Debarrena, Gizarte-bazterkeriaren aurkako Plataforma, Arreiturreko Guraso Elkartea, Ikastolako Guraso Kontseilua eta Kalamua Guraso Elkateak osatzen dute Gizarteratze Mahaia–.

Diagnosi haren arabera, etorkinak, emakumeak eta adinekoak dira bazterkeria jasateko arrisku handieneko giza-taldeak eta hortaz emakume etorkinak dira kate horretan ahulenak; gizarte-ongizate eta bizi-kalitatea eskuratzeko oztopo, sozial, ekonomiko eta politiko handienak pairatzen dituztenak, alegia.

Gizartean zabaldutako uste okerrak isildu eta gogoeta egitera bultzatu nahi gaitu egitasmo honek. Hainbat hitzaldi, tailer eta ekimen antolatuta dituzte nagusi zein umeentzat, nor bere berezitasunak izan arren, oinarrian denok berdinak garela erakusteko.

### EGITARAU OSOA:

- ◆ Hilak 13, eguna: *Fatima* filmaren proiektzioa. 21:30 ean, Herriko Antzokian. Laguntzailea: Ongarri.
- ◆ Hilak 14, ostirala: Zine Foruma eta kafea pastekin. *El Cairo 678* filmaren harira solasaldia antolatuta dute Haizea emakume taldekoek. Loredi Salegik gidatuko du saioa. 21:30ean Kultur Etxeko hitzaldi gelan.
- ◆ Hilak 15, larunbata. Munduko arrozaren dastaketa. 12:00etan, Maalan.
- ◆ Hilak 18, asteartea: Ikram Ghacham ipuin kontalariaren saioa: *Simbad Marinela*. 17:00etan, 5 urteko haurrentzat, Udal Liburutegian. Antolatzailea: liburutegikoak eurak.
- ◆ Hilak 18, asteartea: Hitzaldia. *Belo islamikoa eskolan* izenburuko hitzaldia eskainiko du Amalia Barquin Mondragon Unibertsitateko irakasleak, 19:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.
- ◆ Hilak 20, osteguna. Hitzaldia: *Zurumurruei stop* izenburuko. SOS Arrazakeria taldeko Agustin Unzurrunzagak emango du hitzaldia. 19:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.
- ◆ Hilak 22, larunbata. Emakume migratuen kulturarteko topaketa, Miriam Herbonek gidatuta. 17:00etan, Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Aldez aurretik izena ematea beharrezkoa da.
- ◆ Hilak 25, asteartea: Quita Ourdi ipuin kontalariaren saioa. Arabiar bitxikeriak izena du saioak. Lehen Hezkuntzako lehen mailako eskola umeentzat izango da. 17:00etan, Gotzon Garate Udal Liburutegian. Antolatzailea: Liburutegikoak eurak.
- ◆ Hilak 17-28: Jolasean elkar ezagutzen dugu izenburuko tailerra. Herri Eskolan (urriak 17-28) eta Ikastolan (urriak 25-28). Dinamizatzailea: Baikara.

## Hurrekin heriotza eta dolua lantzeko jarraibideak emango ditu martitzenean Patxi Izagirre psikoklinikoak

Elgoibarko Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkartek, Elgoibar Ikastolako Guraso Kontseiluak eta Elgoibarko Udalak guraso guztiei zuzendutako hiru jardunaldi antolatuta ditu elkarlanean urria, azaroa eta abendurako. Martitzenean, urriaren 11n, izango da lehen saioa Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Patxi Izagirre (Zumarraga, 1970) psikoklinikoak *Dolua eta galerak* izenburuko hitzaldia eskainiko du. Bizitzaren parte da heriotza ere, txanponaren beste aldeak, baina gaia irtendakoan sarri ahaztu edo isiltzera egiten dugu, are gehiago umeak direnean galdezka datozkizunak. Heriotzaren inguruan hitz egitea aholkatzen dute adituek, dolu prozesuetan partaide egitea umeak ere, baina zail egiten da sarri. Baliabideak falta izaten dituzte gurasoek, eta doluaren gai hori seme-alabekin nola kudeatu daitekeen azalduko du Izagirrek hitzaldian. Hainbat pautak edo jarraibideak emango ditu, askotan gurasoek falta dituzten baliabideak, alegia. Bi orduko saioa izango da, 18:00etatik 20:00etara, eta interesatuek izena eman beharko dute aurrez, hilaren 9a baino lehen, Elgoibar Ikastolako idazkaritzan edo [eigk.formakuntza@elgoibarikastola.eus](mailto:eigk.formakuntza@elgoibarikastola.eus) emailera idatzita.

Bigarren jardunaldia azaroaren 9 eta 16rako iragarri dute. Irungo Lilima sexologia taldekoek bina orduko bi saio eskainiko dituzte Kultur Etxeko hitzaldi gelan, sexu-hezkuntzak familietan zer garrantzia daukan erakusteko. Azkenik, abenduaren 2 eta 16an, heziketarako kirolak duen garrantziaz garrantziaz hitz egingo du Unai Arrieta elgoibartarrak. Bina orduko bi saio izango dira hauek ere. Bai azaroko saioetarako zein abendurako izena eman beharko da, baina oraindik ez dute zehaztu non.

## 73.000 euro erabiliko ditu Elgoibarko Udalak sei langile kontratatzeko

Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzutik jasotako 73.692,51 euroko diru-laguntza herriko sei pertsona kontratatzeko erabiliko duela jakinarazi du Elgoibarko Udalak, eta honako hiru proiektu garatuko ditu: hiri txukunketa, udal hornikuntzaren hobekuntza eta optimizazioa eta udal ekonomi kudeaketaren hobekuntza. Hautapen-prozesuan parte hartu nahi duena Lanbideak dituen bulegoetan (Elgoibarko bulegoa, Gabriel Kurutzelaegi, 8) aurkeztu beharko da 2016ko urriaren 6a baino lehen. Lanbideren web orrialdeak ere egin daiteke eskabidea.

### Gaixo dauden presoen egoera salatu du Elgoibarko Sare taldeak

Gaixo dauden presoen egoera salatuzko manifestaziora deitu du Sarek urriaren 15erako, eta Elgoibarko taldeak ere bat egin du deialdi horrekin. Une honetan Euskal Herriko hamar preso gaixoren osasun egoera aztertzeko eskatu du taldeak legearen eta giza eskubidearen ikuspegitik. Elgoibarko Sarek gogoratu nahi du baita ere Sebas Etxaniz elgoibartarra preso dutela, 73 urterekin. Egoera hori guztia salatuzko antolatuta dute manifestazioa eta Donostiako Bulebarretik abiatuko da, 17:00etan. Elgoibartik autobusa jarri dute Donostiara joateko: 16:00etan, King-kong autobus geltokian. Iturri eta Jai Alai tabernetan eman behar da izena.

### Jendetza batu zen zapatuan Txankakuaren stock ferian



Txankakua Elkarteko hamazazpi saltoki eta zerbitzuek hartu dute parte aurtengo Stock ferian, eta arduradunen esanetan, jende asko bildu zen. Maalako parkean egin dute estreinakoz, eta antolatzaileei gustatu zaie leku berria. "Jendetza gerturatu zizaitgun Maalara, eguraldiak lagundu zigun eta egun polita izan zen", adierazi dute Txankakuako ordezkariak. Horrez gainera, 600 euro zozketatu zituzten erosketa txeketan, eta sei lagunek jaso zuten saria, ehun euroko erosketa txeke bana: Montse Cerrejon, Naroa Ramirez, Encarna Peña, Nerea Villar, Alaitz Alberdi eta Deisi Justiniano. Era berean, urriaren 14ra bitartean *Busti Zaitetz Elgoibarko Merkatarien Alde* kanpaina jarri du martxan Txankakuak, eta 500 euritako zozketatuko dituzte bezeroen artean.

### Familia irteera, Idotorbera

Elgoibarko Izarraren Kiribilduz egitasmoak familiengan eragin eta gurasoei zein umeei euskara erabiltzeko espazio berriak eskaini nahi dizkie, eta horretarako, Familia Eguna antolatu dute Ludotekarekin elkarlanean. Urriaren 12an izango da, Idotorben. Oinez edo autoz igotzeko aukera dago, eta han bisita gidatu bat egingo dute, inguruko fauna eta flora ezagutzeko. Horrez gain, era guztietako jarduerak eta jolasak izango dira umeentzako. Familia bakoitzak bere bazkaria eta askaria eramane beharko ditu. Izena emateko 943 741626 telefonora deitu behar da.

### Dantza afrikarren ikastaroa antolatu dute Mendaron

Dantza afrikarren ikastaroa antolatu dute Mendaron. Marie Toure izango da irakaslea eta Bibiche Sambou musikariak zuzenean joko ditu Afrikako doinuak. Afrika mendebaldeko dantza tradizionalak erakutsiko dituzte, bereziki Gineakoak. Klaseak ostegunetan izango dira, 18:30etik 20:00etara, Azpilgoetako lokalean. Izena emateko 686 793 024 telefonora deitu behar da.

### San Antolin jaietako errifaren irabazleak agertu dira

San Antolin jaietako errifaren irabazleak agertu dira, eta antolatzaileek banatu dituzte sariak: Dorleta Loiolak bi lagunentzako Kanariar Uhartetarako bidaia irabazi du, eta Olatz Astigarragak, berriz, janariz eta edariz beteriko karretila.



# “Guk ondo pasatu genuen eta besteek ere ondo pasatu dutela ikustea gustatu zait”

## ► JOSEBA ETXEBERRIA ‘PEDALÓ’ FILMEKO PROTAGONISTETAKO BAT

‘Pedaló’ filmak lau lagunen bidaia nautikoa kontatzen du. Joseba Etxebarria elgoibartarrak eta bi lagunek Hendaiatik Bilbora arteko bidea egin dute pedalontzi batean eta abentura hori filmatu du Juan Palacios zuzendariak. Erositako bigarren eskuko pedalontzia ez zegoen euskal kostaldeko uretarako egina eta zailtasunak segituan agertu ziren arren, ezbeharreri aurre egitea lortu zuten. Bidaia bitxi honetan ez zen falta izan parrandarako eta jendea ezagutzeko denbora, tartean xaman bat.

- LEIRE URKIDI -

♦ ‘Pedaló’ filma Juan Palacios eibartarrak zuzendu du, baina oinarrian dagoen ideia zurea zen.

Pedalontziaren ideia zaharra da, hamar urte baino gehiago ditu. Hasieran Donejakue bidea egin nahi nuen, baina itsasorik gabe Santiagora pedalontzian iristea zaila! Beraz, ideia moldatu eta laburtu beharra egon zen, azkenean 150 kilometro egin genituen euskal kostaldean.

♦ Nola eman zenioten forma?

Juan Kopenhagen bizi zenez, asko hitz egiten genuen Skype bidez, eta apurka-apurka dokumentala grabatzeko berotzen hasi ginen. Verkamin diru bilketa bat proposatu zuen Juanek, eta lortu zuen dirua. Horrela erosi genuen pedalontzia eta prestaketa askoren ondoren, itsasoratu egin ginen. 1.700 euro eskatu genituen eta ia 2.600 euro lortu genituen abentura arrera eramanez ahal izateko.

♦ Oztopoak berehala agertu ziren. Zer ez zenuten aurreikusit?

Kataluniatik ekarri genuen pedalontzia, baina laster ohartu ginen ez zela Kan-





tauri itsasorako egokia. Olaturik gabeko Kataluniako hondartzetan ondo omen zebilen, baina hemen arazo handiak eman zizkigun. Bidaia ere egun bat beranduago hasi genuen. Ur asko sartzen zen pedalontzian eta behin baino gehiagotan konponketak egin behar izan genizkion. Hondoratu ere hondoratu zitzaigun ia!

#### ♦ **Zenbat egun zenituzten bidaia egiteko?**

Hamabost, eta hamabost egunetan egin genuen, eta hori Donostian hiru egunez gelditi egon ginela eta Deban beste bi egunez.

#### ♦ **Zein zen kalkulatu zenuten abiadura?**

Gutxi gorabehera igerian lor dezakezun abiadura, gehiagorik ez, baina aurreikuspena betetzea lortu genuen eta hamabosgarren egunean, Bilboko jailetara suak ikusteko garaiz iritsi ginen gure helmugara Bilbora, Arriaga antzoki paretik su artifizialak ikusteko garaiz. Pedalontzia garraiolari batekin Debara bidali genuen, eta guk sekulako parrandarekin bukatu genuen bidaia.

#### ♦ **Pelikula ikusten hasi nintzenean, zuen abenturarekin jarraitu beharrean, Donostian parrandan geratu behar zenuela iruditu zitzaizkidan...**

Donostiakoa desesperantea izan zen: jendea peladontzian, parranda, konponketak, itsaso txarra... handik alde egin nahi genuen, baina Donostia gainezka zegoen eta arazoak bata bestearen atzetik etorri zitzaizkigun. Baina beno, kostata lortu genuen bidaiarekin jarraitzea.

#### ♦ **Pedalontzian ez zen garagardorik falta, baina behar zenituzten gauza guztiak sartzen zitzaizkizuen?**

Guztiak eta gehiago. Nik horren aldeko apustua egin nuen, arazoren bat bagenuen beti generamatzen bost litro ur, kanaberak, erremintak konponketaren bat egin behar bazen ere, entzuten ez ziren bozgorailu txiki batzuk, gitarra, ukelelea, aletak, betaurrekoak, hodiak... Arrain interesgarriak ikusi genituen eta abestu ere bai, asko abestu genuen. Arrantzatu, egia esan, ez genuen gehiegi arrantzatu.

#### ♦ **Heriotza, maitasuna, xamana, zuen arteko tentsioak... film on baten ele-**

#### **mentu guztiak dituzue. Dena erreala da edo istorioak funtziona zezan zuzendaria bideratu zintuzten?**

Ez, dena erreala da. Baliteke hasieran gu ez egotea guztiz natural, hasierako latsa, baina dena egia da. Tentsioak sortzea normala da, baina segituan desagertzen ziren. Larraitz benetan ezagutu genuen Donostian eta interesa erreala zen, eta xamana Gaztelugatzen zegoen. Han bizi zen uda hartan, bisitariei lanpernak salduz. Egia da mikrofonoak beti prest generamatzen edozer grabatu ahal izateko. Hiletak presentzia du egun horietan gertatu zelako eta filmean ikusten den moduan, benetan bizi izan genuelako.

## *“Urak eraman zuen pedalontzia eta orain erdi hilda dago txalupen hilerritxo batean”*

#### ♦ **Filmean zuen musika entzuten dugu.**

Bai, Juanek argi izan zuen beti gure musika erabiliko zuela. Abestiren bat gurea da, baina besteen abestia ere kantatzen ditugu, ia abestia jakin gabe. Baina filmaren eta gure bidaiaren parte dira.

#### ♦ **Zuzendariak une batean dio zu zarela pedaletan gutxien ikusten zaituena.**

Hori egia izan daiteke, baina ni beti prest nengoen! Nire lagunak gehiegi berotzen ziren portutik irten eta iristerako orduan, eurek egin nahi zuten dena.

#### ♦ **Lau urte behar izan ditu zuzendaria filmari forma emateko. Pentsatu al duzue ez zela iritsiko?**

Bueno, egia esan, Juan 70 ordu baino gehiagoko grabazioarekin lanean ikusteak pena ematen zidan. Hainbeste denboraren ondoren, orain oparibaten moduan iritsi zait filma, eta ahaztuta nituen gauzekin berriz gozatzen ari naiz.

#### ♦ **Zer suposatzen du Donostiako zinemaldian estreinatzeak? Nola bizi izan duzue?**

Lehenengo asteburuan bi emanalditan egon ginen eta biek solasaldia izan zuten ondoren. Lehenengoan gehienak lagunak eta familiakoak ziren, baina bigarrenengoan oso jende gutxi ezagutzen genuen eta hala ere, ondo hartu zuten filma eta solasaldia piztu zen emanaldia- ren ondoren. Pozik!

#### ♦ **Nola ikusi dute ingurukoek filma?**

Ondo, ingurukoek inpresioak onak izan dira eta ondo pasatu dutela esan digute. Beraz, harrotasun puntu bat ere badut; guk ondo pasatu genuen eta besteek ere filma ikusten ondo pasatu dutela ikustea gustatu zait.

#### ♦ **Zer suposatu du Euskal Zinemaren Irizar Saria jasotzeak?**

Juanek lan handia egin du lau urtez, beraz, pozgarria da, eta gainera sari honek Juan bera bide onetik doala baieztatzen du. Sari ekonomikoak lanean jarraitzea ahalbidetuko dio.

#### ♦ **Nork jaso zuen saria eta nola bizi izan zenuten sariaren banaketaren galdak?**

Ostiralean jakinarazi ziguten saria guretzat zela eta larunbatean saria jasotzera laurok igo nahi genuen, baina gauza hauek protokolo handia dute eta ez ziguten utzi, Juan bakarrik igo ahal izan zen. Ni bere ondoan eserita egon nintzen Kursalean galak irauten bitartean jende famatuaz inguratutik.

#### ♦ **Non dago egun abentura honi izena eman dion protagonista: pedalontzia?**

Halako batean urak eraman zuen pedaloa eta orain erdi hilda dago txalupen hilerritxo batean.

#### ♦ **Zer egiteko asmoa duzu orain?**

Batek daki!

#### ♦ **Antzerako beste abenturaren bat bala dago martxan?**

Oraindik ez, baina beti izan ditut buruan horrelako ideiak, oso erromantikoak baina oraindik bideratu ez ditudanak. Gustatuko litzaidake Siberian edo Amerikan abandonaturiko trenbideren batean bidaiaren bat planteatzea. Ea etorkizunak zer dakarren!

# Aurten ez da Errosario kalean jairik egingo

**E**rrosario kaleko jai-batzordeak amaitutzat eman du bere jarduna, eta horrenbestez aurten ez da jairik izango, ez behintzat azkeneko urteotan ezagutu dugun formatoan. Hildako bizilagunen aldeko meza, salbea eta Haritz dantza taldeak Errosarioko Amaren omenez egin ohi duen ezpata-dantza egingo dira, baina ez egitarauan hutsik egin gabe egin ohi ziren gainerrako ekitaldiak. Tristura handiz iragarri dute jaien azkena jai-batzordekoek eurek. "Pena handia hartu dugu. Gu geu hamasei urtean jardun gara jaiak antolatzen eta ikaragarria izan da. Izugarri gozatu dugu eta itzel bete gaitu, baina orain beste eskakizun batzuk bete behar dira eta batzordekoek ez gaude horretarako. Hori bai, diru pixkat daukagun artean Errosarioko Ama Birjinari ez zaio lorerik faltako". Izaskun Landaren hitzak dira, Fadekeko ile-apaintzaile eta jai batzordeko kidearenak.

"Ez da lan handia, baina honetan jardun dugunok lanean ari gara, eta askotan geure lan-ordutegia sakrifikatu behar izaten genuen antolakuntza lanetarako. Gainera, erreleboa hartuko digunik ere ez dago, eta horri gehitu behar zaio aurten elkartearen sortzea eskatzen zitzaigula jaiak antolatu ahal izateko. Papela batzuk aurkeztea izango zen dena ere beharbada, baina batzor-

dekoen artean inork ez zuen ardura hori hartu nahi; inork ez zuen lan burokratiko hori egin nahi", zehaztu du. Errosario kaleko jaiak zerbaite izan badira, boluntario talde txiki baten ekimenez eta jende askoren babesarekin antolatutako jaiak izan direla nabarmendu du. "Taldean osatu dugu egitaraua eta taldean erantzun diogu sortu diren beharrei, bakoitzak ahal zuena egiten. Udalak emandako diru-laguntzarekin eta erriafak saltzeik lortutako diruarekin egin diogu aurre gastuei. Milaka errifa saldu ditugu eta eskerrak eman nahiko nizkieke ekarpena egin duten herritar guztiei ere, asko izan direlako". Esker oneko hitzak baino ez ditu landak Errosario kaleko jaiak posible egin dituzten guztientzat.

## Errosarioko Ama Birjinaren ezpata-dantza

Ostiralean, hilak 7an, Errosarioko Ama Birjinaren ezpata-dantza eskainiko du Haritz dantza taldeak, ohi legez. Udaltxetik San Bartolome parrokiarainoko bidea egingo dute eta elizan dantzatuko dute aurrena (12:00). Meza ostean talde osoa arituko da elizako atarian eta ondoren geldialdiak egingo dituzte dantzarako Kultur Etxe parean, Errosario kaleko Ama Birjinaren irudiaren azpian eta Kalegoen plazan.

## ▶ ROBERTO MERINO

ERROSARIO KALEKO BIZILAGUNA

**Errosario kaleko jaiak modu berezian bizi izan ditu beti Roberto Merinok. Bera arduratu da Ama Birjina zaintzeaz azken urteotan eta bete-betean jardun da jai-batzordean lanean ere, harik eta ia ez erretiroa hartu zuen arte.**

- AINARA ARGOITIA -



**"Erreleboa hartuko digunik ez dagoela sinistea kostatzen zait"**

### ◆ Aurten ez da Errosario kalean jairik egingo, ez behintzat azken urteotako konturik. Zer sentitzen duzu?

Pena itzela. Bi ardura nagusi izan ditut nik urteetan: herri-kirolen saioa antolatzea eta Ama Birjinari egiten diogun lore-eskaintza prestatzea, eta modu berezian bizi izan ditut biak. Herri-kirolen saioa antolatzen, gainera, izugarri disfrutatu izan dut. Aurten, oportetarik etorri aurretik, Ernesto Ezpeleta *Biurri* aizkolariak berak deitu zidan aurten Errosario kaleko jaietan semearekin batera desafio bat egin nahiko lukeela esanez, semea profesiona-

letan hasiko zaiola-eta. Barruak ere buelta eman zidan, jairik ez zela egingo esan behar izan nionean. Oso-oso bereziak izan dira niretzat beti jai hauek. Pentsa, hain izan dira bereziak, oportetarik ere sasoi honetantxe hartzen nituela, jaien antolakuntza lanetan laguntzeko. Erreleboa hartuko digunik ez dagoela sinistea ere kostatzen zait. Balego norbait, nik ahal dudan guztian lagunduko nioke.

◆ **Urazandikoak, San Pedro kalekoak... denak galdu dira. Errosariokoek eusten zioten, baina...**

Bai ba! Pena da. Ahaleginduko gara oraindik norbait bilatzen, baina... zaila dago. Borondatez lan egite hori amaitzen ari da, eta gainera, gu bezala ari direnei eskatzen badiezu horrenbeste kontu egitea... Guk geuk babes handia izan dugu, hemen Errosario kaleko Ama Birjinari fede handia dion jende asko dagoelako eta kalekoen arteko harremana estua izan delako beti. Kale-sentimendu hori beti egon da hemen. Baina, jakina, orain elkarte egitura behar da, papelak bete behar dira, aurkeztu... Legea betetzeko dago, bai, eta guk ere beteko genuke horretara bakarrik bageunde, baina 150 metroko kale bateko jaiak antolatzeke horrenbeste burokrazia bete behar izateak atzera botatzen du. Gauza bat esango dizut: elgoibartar askorentzat, herriko jairik onenak ziren sanbartolomeak eta gero. Ia astebeteko jaiak ziren gureak, pentsa!

#### ♦ Ama Birjinari lorak jartzen ezagutu zaitugu beti. Zer esan nahi du zuretzat?

Berezia da. Gure etxepean dago, eta oso geure sentitu izan dut beti, etxe horretara ezkondu nintzenetik. Aintzina, Jai-Alaiko arkupe batean zegoen, eta arkupe hura kendu zutenean ekarri zuten hona. Etxea nire emaztearen aitittarena zen, eta fatxadan Errosarioko amarentzat ia lekuren bat egokituko zuen galdetu ziotenean ez zuen zalantzarik egin. Ni orain 40 bat urte etorri nintzen hona bizitzera, eta estimu handia izan diot beti Ama Birjinari; fede handia diot, eta azkeneko 27 urtean neuk zaindu eta garbitu dut. Ignazio Mugertza *El Rusok* eskatu zidan. Zenbat aldiz gogoratu naizen ni harekin. Abuztua-edo izango zen eskatu zidanean eta urte hartako irailean hil zen bera. Zer diren kasualitateak.

#### ♦ Aurten nola biziko dituzu jaiak?


Mezetara joango naiz. Badakizu zerk emango didan pena handiena? Zerk tristetzen nauen gehien? San Lazaroko egoiliarrei txokolatea banatu ezinak. Haietako batzuentzat plazaraino igotzeko aukera bakarra izaten zen. Txokolatea hartu, eliza ikusi eta beheruzkoan Ama Birjinari kantuan aritzen zitzaizkion.

#### ♦ Talde baten lana egon da beti jai haven atzean, baina bi erreferente ezagutu ditugu. Juanito Gorostiza zena eta zu zeu.

Nik Juanitoren gandik ikasi nuen. Gizon handia zen. Dena zeukan emateko, eta ez dakizu ondo zenbat lan egin zuen hark isil-isilik. Juanito eta batzordeko nesken, gazteen, arteko zubilana egin dut, ezin gusturago.

## Guillermo Hijanok ohorezko aipamena lortu du Iberoamerikako Kimika Olinpiadetan

Iberoamerikako Kimika Olinpiadak jokatu dituzte Bogotan (Kolonbia) hamazazpi herrialdetako ia 70 ikaslek, eta horien artean Guillermo Hijano elgoibartarrak ohorezko aipamena eskuratu du. Euskal Zientzia Olinpiadetan eta Espainiako Fisika eta Kimika Olinpiadetan lau domina eskuratu ostean lortu zuen Guillermo Hijanok Iberoamerikako Kimika Olinpiadetan parte hartzeko sailka-



pena. Bi proba jarri zizkieten, biak bost ordutik gorakoak: laborategian egin beharreko ariketa praktikoa bata, eta azterketa teorikoa bestea. Olinpiadak prestatzeko astebeteko egonaldia egin zuten Madrilen, eta egunero zortzi ordu eskaini zizkin Olinpiadak prestatzeari. Beste herrialdeetako ikasle batzuek, ordea, urte osoan aritu dira olinpiadak prestatzen. "Argentinarek, esaterako, urte sabatikoa hartu dute olinpiadak prestatzeko", azaldu du Hijanok.

Parte hartzaileen artean gazteena izan da elgoibartarra. 16 urte dauzka eta 19 urte gainerako parte hartzaileek. Batxilergoko bi urteak ikasturte berean egin zituen IES Mutriku BHI ikastetxean eta irailean hasi da Fisika eta Ingeniaritza Elektronikoko Gradu bikoitza ikasten EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatean, Leioan.

## Herriko kultur eskaera aztertuko du Udalak

Elgoibarko Udalak herritarren lehentasunak eta Herriko Antzokiaren inguruan duten iritzia ezagutu nahi du, ekintza eta programazio egokiak prestatzeko. 15 urtetik gorakoen artean 773 inkesta egingo dituzte Elgoibarren eta inguruko herrietan. Inkestak telefonoz egingo dituzte urriaren 17ra bitartean, eta azaro hasierarako lehenengo ondorioak prest izango dituzte. Telefono bidezko inkestez gain, kultur elkarteetako arduradunekin aurrez aurre bilduko dira informazioa jasotzeko.

## Giro onean ospatu dituzte San Migel jaiak



Arg.: Elorri Irusta

San Migel jaiak ospatu zituzten joan den asteburuan Aiastian, eta dema eta lehiaketak ez ziren falta izan: Arraza libreko artzain txakurren Euskal Herriko txapelketa Aizarnazabalgo Manuel Gorriiti eta Argi txakurrak irabazi zuten. Kintopeko ldi-dema txapelketan, berriz, Orioko Olidenen idi-parea nagusitu zen, eta bolo txapelketan Ibai Diez izan zen onena. Txahalaren errifaren zenbaki saritua 8265 zenbakia izan da (Ordezkoa, 6781).



Arg.: Soarte

## Sanlo eskubaloi taldeak hamasei talde eta 310 jokalarirekin hasi du

**S**anlo eskubaloi taldeak handitzen jarraitzen du. Hamasei taldek osatuko dute aurten kluba, iaz baino bi talde gehiagok. Hona hemen Estatuko 1. Maila), Salento (Senior gizonekoak, Lurraldeko Liga), Tecnifuelle (Jubenil neskek, Euskal Liga), Beristain (Jubenil mutilak, Cometel (Kadete neskek, Lurraldeko Liga), Dario (Kadete neskek, Lurraldeko Liga), Urkunde (Kadete mutilak, Euskal Liga), Bankoa (Infantil neskek, Lurraldeko Liga), Modeltek (Infantil mutilak, Lurraldeko Liga), Murgil (Infantil mutilak, Lurraldeko Liga), Hotel Txarriduna (Infantalaridako eta 80 neska-mutil dabilta alebin mailako taldeetan. Uztailan zuzendaritza berria hasi zen lanean Sanlon. Cesar Arriolari lekuko egindako lan onari jarraipena ematea izango da zuzendaritza berriaren lehen erronka.

## C.D. Elgoibarrek bazkide kanpaina hasiko du



CD. Elgoibarrek bazkide berriak egiteko kanpaina jarri du martxan, 2017an ospatuko duten klubaren mendeurrenari begira. Asmo horrekin, kalera irtengo dira zapatuan (urriak 8). Kalegoen plaza inguruan informazio mahai bat jarriko dute; batetik, bazkide egin diren herritarrei bazkide txartelak banatzeko, eta, bestetik, bazkide egin nahi dutenentzako izenemate orriak banatzeko. 11:00etatik 13:00etara bitartean egongo dira plaza. Arratsaldean, Haundik Debako Amaiak Bat taldearen aurkako derbia jokatu du Mintxetan, 17:00etan.



## 2016-2017 denboraldia

Taldeak: Lauko (Senior emakumeak, Euskal Liga), Alcorta Forging Group (Senior gizonezkoak, Euskal Liga), Deka (Jubenil mutilak, Lurraldeko Liga), Astigarraga (Kadete neskek, Euskal Liga), Kadete mutilak, Lurraldeko Liga), Bacalaos Alcorta (Infantil neskek, Lurraldeko Liga), Pneumax (Jubenil mutilak, Lurraldeko Liga). Guztira, federatutako 230 jokalarirekin dituzte Sanloko 2016-2017 denboraldia. Aitor Urainek hartu zuen kirol taldeko presidente kargua. Urainen berbetan, aurrekoek

## Idorbeko bizikleta igoseraren 25. edizioa jokatuko dute urriaren 12an



Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari elkarrekin antolatuta, Julian San Juanen Oroimezko 25. San Pedroko igoera jokatuko dute eguaztenean, urriaren 12an. Txirrindulariak 12:00etan irtengo dira Kalegoen plazatik, eta Idorbe gaineraino dauden 3,8 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Iaz 39 lagunek parte hartu zuten proban eta Ramon Garcia elgoibartarrak irabazi zuen. Idorbeko maldetan lortu zuen hirugarren garaipeña izan zen iazkoa, 1998an eta 2004an ere berak irabazi zuen-eta. Probako errekorra Iñigo Larizek dauka: 13:21 denborarekin.

## Emaitzak

### FUTBOLA

Oiartzun 0 – Haundi 0 (Ohorezko Erreg.)  
Elgoibar 3 – Munibe 2 (1. erreg.)  
Aloña Mendi 1 – Elgoibar 2 (Oho. jub.)  
Elgoibar 2 – Lagun Onak 1 (Jub. 1. maila)  
Elgoibar 2 – Aretxabaleta 5 (Oho. kad.)  
Anaitasuna 2 – Elgoibar 3 (Inf. Txiki)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 5 – San Juan 1 (Nazional B)

### ESKUBALOIA

Alcorta Forging Group 34 – Quiron Askartza 27 (Senior giz.)  
Urola Laztimendi 24 – Salento Pizzeria 22 (Senior giz.)  
Tecnifuelle 25 – Kukullaga 23 (Jub. nes.)  
Elgoibar 11 – Leizaran 32 (Kad.)  
Deka Elgoibar 33 – Ilcapo Hondarribia 24 (Jub. mut.)  
Bankoa 22 – Amenabar Zarautz 29 (Kad. mut.)  
Leizaran 12 – Dario Bus 29 (Kad. nes.)

## Agenda

### FUTBOLA (Mintxetan)

Barixakua, 7  
16:30 Elgoibar – Trintxerpe (Oho. Jub.)  
Zapatua, 8  
11:00 Elgoibar – Lagun Onak (Oho. Jub.)  
17:00 Haundi – Amaikak Bat (Oho. Erreg.)

## Sanloren oparia Gurutze Gorriari

Sanlo eskubaloitako taldeak 662 euro batu zituen Sanlobeer garagardo festaren barruan egin zuen Bingo solidarioan, eta diru hori Elgoibarko Gurutze Gorriari ematea erabaki dute, gizarte larrialdi programa garatu ahal izateko, hain zuzen ere. Sanloko presidente Aitor Urainen eskutik jaso zuen txekoa Elgoibarko Gurutze Gorriko presidente Julian Rodriguezek.



**LANA.....****Eskaerak**

Ingeles eskolak ematen dira, banaka edo talde txikietan, etxez-etxe. Ingeles tituludun irakaslea.

☎ 680 319 002 / 943 744 062

Adinekoak edo gaixoak zaintzen egingo nuke lan. Asteburuetan.

☎ 617 571 210

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka. Formazioa eta esperientzia handia ditut.

☎ 671 989 434

Umeak zein adinekoak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo portalak garbitzeko prest nago. 13:00etatik aurrera.

☎ 943 743 638

Pertsona nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetarako edo baserriko lanak egiteko prest.

☎ 634 830 423

Tituludun irakasleak ingeles eskolak ematen ditu. Talde txikiak.

☎ 680 319 002/943 744 062

Etxeak garbitzen egingo nuke lan, orduka.

☎ 637 102 725 / 943 744 033

Sukaldari laguntzaile lanetarako, adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 677 259 560

Geriatría laguntzaile adinekoak zaintzeko prest. Gauzez ere, ospitalean zein etxean.

☎ 660 511 781/943 742 330

Nagusiak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.

☎ 632 928 108

Mendaroko gaztea LHko haurrei eskola partikularrak emateko prest.

☎ 646 738 095

Garbiketa lanak egin edo adinekoak zaintzeko prest nago. Baita sukaldari laguntzaile aritzeko ere.

☎ 616 457 254

Eskola partikularrak emango nizkieke, 6-12 urte bitarteko umei. LH Magisteritza ikasten ari naiz, ingeleseko First titulua daukat eta dislexiari buruzko ikastaro berezi bat.

☎ 648 505 233 (Amaia)

Adinekoak zainduko nituzke. Garbiketa lanak ere egiten ditut. Goizez, orduka.

☎ 647 100 572

Adinekoak zainduko nituzke, orduka. Formazioa eta diplomak dauzkat.

☎ 671 989 434

Portalak eta elkarreak garbitzeko prest nago.

☎ 617 571 210

**Eskaintzak**

LH6. mailako ikasle bati eskolako lanak egiten laguntzeko pertsona bat behar dut. Euskaraz jakitea beharrezkoa da.

☎ 617 386 198

**ETXEBIZITZAK.....****Alokairua**

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

☎ 631 252 750

Logela bat hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

☎ 655 711 200

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan.

☎ 688 723 121

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan.

☎ 688 723 121

Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke alokairuan.

☎ 620 712 478

**GARAJEAK.....**

Garaje itxia salgai Mendaron, Herriko Enparantzan.

☎ 648 012 181

**OSPAKIZUNAK.....**

80 urte egingo dituztenen bazkaria urriaren 29an Txarridunan. 12:30ean meza, Maalako kaperan. Segidan, ar gazkia. 14:30ean, bazkaria. 50 euro sartu, Laboral Kutxako kontu honetan: ES61 3035 0007 2100 71132989. Azken eguna: urriak 26.

**BESTELAKOAK.....**

Txakur batentzako gordeleku behar dugu. Ahal bada argi naturala sartzen den leku bat. Hilean 100 euro ordaintzeko prest gaude.

☎ 695 751 985

Kartera galdu dut Pilarreko aparkalekuan. Dirua eta Ipod aparatua zeuden. Ipada itzultzea eskertuko nuke. Utzi mesedez, Udaltzaingoa.

Karakate mikologia elkarte nire bazkidetza partea traspasatzeko prest nago.

☎ 688 605 253

**BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:**

Etxebizitza, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretiratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ 943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)



**Gure komunitateak enpresa eraikitzailearen eta eraikuntzan aritu ziren teknikoen kontrako helegite judiziala abiatu zuen orain urte batzuk, eraikuntza-akats larriengatik. Bi urte geroago, aldeko epaia jaso dugu eta epaian diote bizilagunok kalte-ordainak jasoko ditugula peritu-txostean agertzen diren akatsengatik.**

Bizilagun guztiok egin diogu aurre auzibidean sortu diren gastuei (partaide-kuotaren arabera), kalteuenek zein kalterik apenas izan zutenek eta baita bere egunean akatsik ikusi ez zutenek ere.

Kalte-ordaina iristen denean dirua zeintzuen artean banatu behar da? Zeinek jaso behar du kalte-ordaina: peritu-txostenean agertzen diren kaltetuek bakarrik ala bere garaian akatsik ikusi ez arren gastuak ordaintzen lagundu duten horiek ere bai?

Legaren arabera, eraikineko etxebizitza eta lokal bakoitzari partaide-kuota bat dagokio eta horren arabera zehazten da bakoitzari zer karga/gastu eta zein irabazi dagozkion. Beraz, kalte-ordainetan jasotako diru hori etxe-jabe eta lokal-jabe guztien artean banatu beharko da.

**OHARRA: peritu-txostenean agertzen diren kaltetuei ez ezik informea idatzi zen egunean akatsik zehaztu ez arren gastuak ordaintzen parte hartu duten horiei ere banatu behar zaie kalte-ordaina. Partaide-kuotaren arabera zehaztuko da nori zer dagokion.**

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749







Zorionak, **Eileen**, igandean zure eguna izan zelako. Muxu bat zure senarraren eta Xabi eta Irune-ren partez.



Zorionak, **txapeldun**, patxo handi bat familia osoaren partez.



Zorionak, **Mikel**, urriaren 3an 7urte egin dituzulako. Etxeko guztion partez.



Zorionak, **Iker**, aurreko zapatuan 9 urte bete zituelako. Familia osoaren partez.



Zorionak, **Javier**, asteartean, urriak 4, zure urtebetez eguna izan zelako. Familia osoaren partez, besarkada bat.



Zorionak, **Jon**, Gaur 10 urte! Gauean ospatuko dugu! Patxo handi bat etxeko eta bereziki, Maiale-n partez.




Zorionak, **Manex**, urriaren 16an 9 urte! Ondo pasa eta jaso muxu potoloak maite zaitugun guztion partez.



Zorionak, **Biatz**, igandean 11 urte egingo dituzulako. Ondo pasa! Etxeko partez.



Zorionak, **Paul**, asteartean 5 urte bete zituelako. Muxu handi bat, familiako partez.



Zorionak, **Mikel**, astelehenean 2 urte handi bete zituelako. Etxeko eta batez ere Maialenen partez.



Zorionak, **Leire**, urriaren 5ean 6 urte egin zituelako. Etxekoon partez.



Zorionak, **Manex**, bihar 5 urte beteko dituzulako. Etxeko partez, eta bereziki Javier, Aitana eta Ikerren partez.



Zorionak **laukote**. Urria bete-betia el Hillaren batian Maddi, Sean Axi, eta 16xan Manex eta Ander. Ondo pasau eta muxu bana familixakuon partez.



Zorionak, **Luken**! Martitzenean 4! Bai arin pasau ere! Maite-maite, batez ere Elgoibarko sorgiñek.



Zorionak, **Hiart**! Urriaren 8xan urtetxo bat etxeko printzesak. Muxu erraldoi bat familiakako danon partez!



Zorionak, **Aimar**, etxeko guztion partez. Ondo pasa zure egunean.



Zorionak, **Malen**! 5 urteko neska handia!! Larunbatean denok ospatuko dugu.



Zorionak **Luis eta Rosario**, zuen ezkontzaren 50. urteurrenean. Bihotzez etxeko guztion partez. Pozik ospatuko dugu denok zapatuan.

Hurrengo alea urriaren 21ean kaleratuko dugu. Ale horretan norbait zoriondu nahi baduzu, urriak 19, (eguztana), 12:00etarako ekarri behar duzu argazkia [BARREnera edo bidali barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:BARREnera edo bidali barren@elgoibarkoizarra.eus) helbidera.

Erretratu bakarrekogurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
Erretratu bakarrekogurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€.  
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Uzuri

ELGOIBAR - DEBA  
optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359

[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

VOGUE  
BETAURREKO  
OSOA

Zatoz probatzera!  
Galdetu baldintzak!

89€tik hasita

P.V.P. gomendatua

## 6 EGUENA

20:00 Pintxo-concert. Musika Eskolan.

## 7 BARIXAKUA

12:00-14:00 / 18:00-20:00 Erakusketa. Mendaroko aire libreko margo lehiaketako lanak jarriko dituzte ikusgai, Lagun Betikoak jubilatuen egoitzan. Barixaku, zapatu eta domeketan.

12:00 **Meza nagusia**

**Ostean**, Errosario kaleko Ama Birjinaren ezpata dantza. Parrokia aurrean.

21:30 Beldurrezko gaua

*Session 9* filma, Sutegixan. Elgoibarko Gaztetxean.

## 11 MARTITZENA

18:00 Hitzaldia: dolua eta galerak. Hizlaria, Patxi Izagirre. Kultur Etxeko hizaldi gelan.

## 12 EGUAZTENA

10:30 Familia eguna. Irteera Kalegoen plaza. Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

12:00 Idortorbeko txirindulari igoera. Kalegoen plazatik. Antolatzailea: Lagun Taldea.

## 13 EGUENA

21:30 *Fátima* filma. Elgoibarren Elkar(-)bizi egitasmoaren barruan. Herriko Antzokian. Antolatzailea: Ongarri.

## 14 BARIXAKUA

17:30 Kiribilka. Maalako parkean.

18:30 Historiaurrea: Ehiza, artea eta erotis-

moa. Hilaren 28ra arte, Kultur Etxean.

21:30 Zine foruma. *El Cairo 678*. Hizlaria: Loredi Salegi. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Antolatzailea: Haizea. Elgoibarren Elkar(-)bizi egitasmoaren barruan.

## 15 ZAPATUA

8:00 Ikustaldi gidatua. San Bartolome parrokiaren 300. urteurrenaren barruan. Mor-kaikorekin elkarlanean.

12:00 Munduko arrozen dastaketa. Elgoibarren Elkar-bizi egitasmoaren barruan. Maalako parkean.

16:00 Autobusa, King-Kongen. Sarek Donostian deitu duen manifestaziora joateko.

## 16 DOMEKA

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian.

## 18 MARTITZENA

17:00 Ipuin kontalaria: Simbad marinela. Liburutegian. Elgoibarren Elkar-bizi egitasmoaren barruan.

19:00 Hitzaldia: Velo islamikoa eskolan. Hizlaria: Amalia Barquin. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Elgoibarren Elkar(-)bizi egitasmoaren barruan.

## 20 EGUENA

19:00 Hitzaldia: *Zurruurruei stop*. Antolatzailea: SOS Arrazakeria. Kultur Etxeko hitzaldi gelan. Elgoibarren Elkar(-)bizi egitasmoaren barruan.

**NIRE BANKETXEAN  
MAILEGU MIXTO BAT  
ESKAINI DIDATE  
ETXEBIZITZA  
EROSTEKO.  
AUKERA ONA DA?**

**M**erkatuan hiru aukera eskaintzen dira: kuota finkoko mailegua, kuota aldakorreko mailegua eta mailegu mixtoa. Denetan desegokiena, zalantzarik gabe, azken hau da.

Izan ere, mailegu honek interes finko bat ezartzen du lehen hamar urteetarako adibidez (ohiko epea da), eta hortik aurrera Euriborren gaineko diferentzial bat ezartzen du. Euriborra dagoen bezela egonda (negatiboan dago), mailegu hau interesgarria izan daiteke alderantzizko formatuarekin, hau da, lehenengo tasa aldakorra ordainduz gero eta epe hori pasa ondoren tasa finkoa ordainduz.

Eskaintza hori merkatuan ez dagoenez, proposatu dizuen aukera hau ez dizugu gomendatzen, eta nahiz eta guri orokorrean interes aldakorreko mailegua iruditzen zaigun egokiena, segurtasuna nahi izanez gero, interes finkoko mailegutik jo dezazun proposatzen dizugu.

Atal honetarako galderarik proposatu nahi izanez gero idatzi helbide elektronikoko honetara: [galderak@bankoia.es](mailto:galderak@bankoia.es)



**CORDON  
VILARCHAO**

San Foko, 7 behea  
Pol. Gizeo - Gizeo kalea, 18 - 25 eta 26 modulea  
Tel. 943 746 570

**DEKORAZIOA**

Karpo eta berrak estaldura  
Zaluzko ezarpenak  
Lakadura: eguz, aluminio, PVC.  
Pintura: oinarria

GRUPO  
REALMAY

# A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua

angelmgarate@gmail.com

Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651



## Zinea (Herriko Antzokian)




### 'Bridget Jones's baby'

7 barixakua, 21:30

8 zapatua, 19:00 / 22:15 (VOS)

9 domeka, 19:00

10 astelehena, 21:30



### 'Ice age'

9 domeka, 16:30

### 'Cuerpo de élite'

12 eguaztena, 19:00

14 barixakua, 21:30

### 'Fátima'

(Ongarri zinekluba)

13 eguena, 21:30



### 'Café society'


15 zapatua, 19:00 / 22:15 (VOS)

16 domeka, 19:00

17 astelehena, 21:30

### 'Mascotas'

16 domeka, 16:30



## Botika ordutegiak

### 09:00 - 22:00

6 eguena GARITAONANDIA

7 Barixakua IBAÑEZ

8 Zapatua FERNANDEZ

Goizez, ETXEBERRIA

9 Domeka FERNANDEZ

10 Astelehena YUDEGO

11 Martitzena ORUESAGASTI

12 Eguaztena GARITAONANDIA

13 Eguena IBAÑEZ

14 Barixakua ORUESAGASTI

15 Zapatua ETXEBERRIA

16 Domeka ETXEBERRIA

17 Astelehena YUDEGO

18 Martitzena FERNANDEZ

19 Eguaztena ORUESAGASTI

20 Eguena BARRENETXEA

21 Eguena IBAÑEZ

### 22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara

ETXEBERRIA (Elgoibar)

Santa Ana, 1

Tel.: 943 740 140

### 00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)

Fermin Calbeton, 19

Tel.: 943 201 110

\* Fernandez: Herriko enparantza 4,

Garagartza (Mendaro)

Tel.: 943 756 142

\* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

\* Oruesagasti: Kalebarren, 9

(Soraluze) Tel.: 943 751 384

## Telefono interesgarriak

Elgoibarko Izarra.....	943 741 626
Udaltzaingoa.....	943 741 394
Udalaren arreta bulegoa...	943 741 050
Udaleko idazkaritza.....	943 743 700
Bake epaitegia.....	943 741 630
Gizarte Ongizate saila.....	943 741 008
Hirigintza.....	943 744 384
Mankomunitatea.....	943 700 799
Debemen.....	943 744 067
Artekaritza (Hazienda).....	943 744 414
Berdintasun saila .....	943 741 050
Euskara saila.....	943 744 366
Kultura saila.....	943 742 158
Udal liburutegia.....	943 743 525
Gazteria saila.....	943 531 319
Gazte informazio gunea...	943 257 986
Ludoteka.....	943 748 883
Gaztelekuia.....	943 743 228
Enplegua/Merkataritza.....	943 741 050
Emugi.....	943 747 371
Kiroldegia.....	943 744 415
Mintxeta.....	943 747 356
Musika eskola.....	943 742 145
Udal euskaltegia.....	943 742 731
AEK euskaltegia.....	607 601 423
KZgunea.....	943 023 640
Jubilatuen biltokia.....	943 740 526
San Lazaro egoitza.....	943 740 296
Eguneko zentroa.....	943 744 565
Kontsumo bulegoa.....	943 743 088
Taxi geltokia.....	943 740 898
Larrialdiak.....	112
Gurutze gorria.....	943 743 864
Eusko tren.....	902 543 210
Pesa.....	902 101 210
Jokalari anonimoak .....	657 710 156
Alkoholiko anonimoak.....	629 141 874
Correos -Posta.....	943 741 547

Mendaroko Udala.....	943 033 282
Liburutegia.....	943 033 291
Bake Epaitegia.....	943 033 289
Eguneko Zentroa.....	943 031 746
Mendaro Ikastola.....	943 756 141
Hautzaindegia.....	943 755 219
Musika Eskola.....	943 244 275
Taxi .....	607 57 57 28
Ospitalea.....	943 032 800



Eire Vila

## Mikel Olaizola



A tzo goizean eguraldi iragarpenean euria eta hodei ilunak ikusi eta kopeta belztu zitzaidan.

Iluntzea bitarte beste hirutan sartu nintzen orrialde berean, ia aldaketarik bazen edo. Hala, bart gauean *treguarik* ez; logelak atzeko patiora ematen dit beti eta uralitan trapatatan danbor hotsa gerran. Gaur gosaritan zera lardats sukaldeko beirate lausotuan, eta irratian albiste txarrak. Baina ez dirudi asko-asko botako duenik ere...

Azpiko tabernan kafe bat esnatzeko; bertakoei begiak nirekin zabaltzen zaizkie, nirekin esnatu dira, hango perfume merke eta tabako usainean aparizio bat banintza edo Amistad dioen argi gorrizko errotuluaren azpitik pasata. Antoniok bekaina altxaz aurpegiratu dit nora noan alkondara loratua, praka motz moreak eta sandalia naranjak jantzita. Baliante! la noiz onartuko dudan udazkena dela.

Eta gurutzegrama erdia bukatuta lehertu da zaparrada; eta dena dira irripar salatariak nire oin erdi-biluziei zeharka begira. Mari Karnekek bere aterki beltza luzatu dit errukiz barra barruti; elegantea da, zaharretakoa, hartu

egin diot muturretik. Gogor dihardu goian-behean.

Baina gaur ez dut euritakorik behar; goazen bustitzera, Mikel. Goazen bustitzera aspaldi ez bezala, burutik oinetara, hezurretaraino, ura sentituz azalean labainkor. Gaur ez dut behar estalkirik, etxepeko hormaren kontra geratzen zara; zuloak agertzen hasi zaizkion hormaren kontra. Ia eusten diozun; bestela bustitzerik nahi ez duen norbaitek hartu zaitzala.

Bihar ohean pasako dut eguna: ez-tulka, sudurzuloak itxita, kopeta sutan. Zoriontsu.

*'Gaur ez dut euritakorik behar, goazen bustitzera, Mikel'*

# Gida komertziala



Elgoibarko eta Mendaroko gida komertziala prestatzen dihardugu.  
Zure enpresaren datuak gidan DOAN agertzeko aukera daukazu!

Datu-basea osatzeko zure laguntza behar dugu, baina, eta horregatik,  
eskertuko genizuke gurekin harremanetan jarzea:

[gida@elgoibarkoizarra.eus](mailto:gida@elgoibarkoizarra.eus)  
644 765 640 / 943 743 704



## HizKELAN

jardunaldia

**Hizkuntza Kudeaketa eta  
Euskara, Enpresan eta  
Lanbide Heziketan**

**Urriak 19**  
**9:00-14:00**  
**IMHn**

**Gonbidatuta  
zaude!**

izen emateak: [www.imh.eus](http://www.imh.eus)  
943 74 41 32

- Enpresetako praktikak euskaraz.
- Hizkuntz-Proiektua Lanbide Heziketan
- Langile-langabeen ikastaroak euskaraz
- Hizkuntza Kudeaketaren kasu errealak
- Lan munduan euskararen erabilera bultzatzeko ekimenen azken berritasunak



LANEKI



# BUSTI ZAITEZ ELGOIBARKO MERKATARIEN ALDE



Urriaren 3tik 14ra bitartean egindako erosketa guztien artean  
**500** euritako zozketatuko ditugu.

*animatu zaituz, ez galdu aukera!!!*